

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Foru intereseko inbertsio gisa deklaratu da Tuteran bi eguzki-instalazio fotovoltaiko abiarazteko proiektua

*Zuzeneko 180 lanpostu eta zeharkako 200 lanpostu sortuko dituela aurreikusi da*

Asteazkena, 2018.eko urriak 24

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran onartu duen erabakiaren arabera, foru intereseko inbertsio gisa deklaratu du, Tuteran 62 MWeko baterako potentzia izanen duten bi eguzki-instalazio fotovoltaiko abiarazi eta ustiatzeko proiektu enpresariala, “Ríos Renovables” taldeko “Suno Energía 4 SL” eta “Suno Energía 5 SL” enpresek bultzaturikoa.

Eraikuntza, instalazio eta abiarazteko fasean, zuzeneko 180 lanpostu eta zeharkako beste 200 lanpostu sortuko direla aurreikusi da, ondorengo ustiapenerako egingo den 30 pertsonaren kontratazioaz gain. Enplegu hauek guztiak proiektua kokatuko den eskualdean sortuko dira.

Proiektuak 52.714.000 euroko inbertsioa ekarriko duela kalkulatu da, Nafarroako Espezializazio Adimenduneko Estrategiako “Energia berriztagarriak eta baliabideak” arlo estrategikoari atxikita. Gainera, Plan Energetikoan zehaztutako energia berriztagarrien arloko ekoizpen-helburuak betetzen lagunduko du, eraikuntzan nahiz ustiapenean, enplegua sortzeko behar bereziak dituen eskualde horretan.

Kontuan izan behar da Exekutiboak foru intereseko inbertsio bezala deklaratzeko ahal dituela Nafarroako ekonomia, gizarte nahiz lurralde garapenerako garrantzi berezia dutenak. Halakotzat jotzen diren ekimenei lehentasunezko eta presazko bultzada eman ohi zaie Nafarroako administrazio publikoekin egin beharreko geroko tramiteetan. Adibidez, erdira murrizten dira jarduera ezartzeko, hiri-plangintza egokitzeko nahiz egikaritze, irekitze eta funtzionamendu baimenak emateko aurreikusitako tramiteen ohiko epeak.